



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Getxoko Udala

Garapenerako lankidetzarako proiektuak diru-laguntzeko 2024ko deialdia. BDNS (Identif.): 756344.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/756344>).

Getxoko Udaleko 2024ko apirilaren 23ko Toki Gobernuaren Batzarraren Akordioaren Laburpena: Garapenerako Lankidetzako proiektuetarako diru-laguntzak emateko deialdia.

Lehena. — Onuradunak

Baldintza hauek betetzen dituzten GKEak aurkeztu ahalko dira deialdi honetara:

Herri txirotuetan giza garapena sustatzeko egitasmoak bideratu nahi dituen eta behar bezala inskribatuta dagoen edozein pertsona juridikok.

Nortasun juridikorik duten erakundeak, Bizkaiko Lurralde Historikoan erakundearen egoitza zein ordezkariak egonkorra edukiko dute.

Getxoko Udalarengandik lehenago jasotako laguntzaren bat justifikatzeko dokumentuek ez dute udalaren laguntzarik jasoko.

Ez dute, halaber, diru-laguntzarik jasoko zerga betebeharretan egunean ez dauden, edo Gizarte Segurantzarekin zorretan daudenen.

Irabazi asmorik gabeak izan behar dute.

Diru-laguntzari eutsi ahalko diote, halaber, aurreko baldintza guztiak betetzen dituen erakundeen multzoek; eta partzuergo burua Getxon egoitza edo delegazioa duenean eta behintzat bi urteko antzinakotasuna, gainontzeko partaideak egoitza edo delegazioa eduki beharko dute Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Multzoan bildutako erakundeek egitasmoaren baterako erantzukizuna hartzen dute beren gain, bai espedientearen administraziozko jakinarazpenen ondoretarako, bai Administrazioaren aurreko solaskide izateko ondoretarako. Erakunde bakoitzaren egitasmo partaidetzaren portzentajea, eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak, dagokien eskaria aurkezten dutenean zehaztuko da. Itun horretan espresuki adieraziko da erakunde bakoitzak egitasmo osoan duen partaidetza portzentajearen ondoriozko erantzukizun zuzena eta erantzukizun subsidiarioa bere gain hartzen dituela.

Herri Administrazioaren eta aurrezki erakundeen mendeko erakunde eta zerbitzuen egitasmoek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Bigarrena. — Xedea

2024ko laguntzak arautzea da, garapenerako lankidetzaren helburu ekintzak sustatzen duten pertsona juridikoen bidez, hau da, GGKE, kongregazio erlijioso, fundazio eta antzekoen bidez, herri txirotuekiko gizartearen eta ekonomiaren alorretan lankidetzaren egitasmoak burutzeko.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Deialdia Getxoko Udaleko 2024ko apirilaren 23ko Toki Gobernuaren Akordioaren bidez onetsi ziren eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira deialdiaren argitalpenaren egun berean.



Laugarrena.—Zenbatekoa

Deialdiaren zenbatekoa 380.750 eurokoa da.

Bosgarrena.—Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Getxon, 2024ko apirilaren 23an.—Garapen Lankidetzarako teknikaria, Unai García Gallastegui